



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Behin-betiko onespena ematea 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlana.

Basauriko (Bizkaia) Elizate Prestuko Udalbatzak, 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkuran honako hau erabaki zuen:

Lehena: Catalina Island, S.L. enpresak eskatuta, 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlanaren hasierako onespeneren dokumentua jendaurrean jartzeko aldian aurkeztutako alegazio hauek ezestea.

Zk.	Egilea	Erregistro-zk.	Data
1	M. ^a Teresa Dañobeitia Landeta	2024002699	2024/03/18
2.2 eta 2.3	Urtzi Saratxaga Lozano	2024004090	2024/04/24

Bigarrena: Urtzi Saratxaga Lozanok aurkeztutako 2.1 alegazioa partzialki baiestea eta, hura argitaratzeko eta indarrean jartzeko, Catalina Island, S.L. enpresak aurkeztutako 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlanak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko duela erabakitzea.

Hirugarrena: 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlana behin betiko onestea, Catalina Island, S.L. enpresak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

Laugarrena: Aurreko puntuan aipatutako Xehetasun Azterlana Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu baino lehen Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.

Bostgarrena: Behin betiko onespeneraren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.basauri.eus> helbidea) argitaratzea.

Seigarrena: Erabaki honen edukiaren berri ematea interesdunei.

Jakinarazten zaizun ebazpenaren aurka, zeina behin betikoa baita administrazio-bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duzu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/98 Legearen 46. artikuluaaren arabera. Horrek ez du eragotziko beste edozein aurkaratze-bide erabiltzea, egoki baderitzo.

Basaurin, 2024ko uztailaren 5ean. — Alkatea